



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2019ko MARTXOAREN 20an EGINIKO EZ OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2019ko martxoaren 20an, Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 20:00 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)
Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB)
Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)
Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

1. 2019ko Udal aurrekontuen 2019/02 Kreditu Aldaketa: onespena

.../...

LEHENENGO PUNTUA

2019ko Udal aurrekontuen 2019/02 Kreditu Aldaketa: onespena

Alkate andreak segidan jasoko den proposamena sartu du gai-zerrendan, presazko arrazoi hauek direla eta:

URA UR AGENTZIA AO-G-2018-0179 erreferentzia duen espediente hau izapidetzen ari da: ASTEASUKO (GIPUZKOA) UDALERRIAN, ASTEASU ERREKASTOAREN EZKER ERTZEKO UREN POLIZI GUNEAN ERREKA BAILARA AUZOAREN SAIHESBIDEA ETA GI 4141-AREN HASIERAKO BIDEUNEAREN HOBKUNTZAREN BIGARREN FASEKO LANAK.

Espediente horren izapidetzan, Udalak proiektu hau idatzi eta igorri dio aipatu erakundeari:

“Separata nº 2 del proyecto de variante y mejora del tramo inicial de la GI-4141 al barrio de Erreka Bailara (Asteasu)”, INGENIERIA SALABERRRIAK 2019ko otsailean idatziatakoa.

2. Separata horren helburua da fabrikako obra bat egitea, zubiaren isurbide gaitasuna hobetzeko; hala, Asteasuko herrigunea zubiarekin komunikatzen duen errepidea gauzatu eta gero, ez dira gainetik igotzeak emango gorantz dauden uretan, uholdagarritasun aldetik egungo egoera ez okertzeko.

2. Separata hori idatzia izan da URA UR AGENTZIAko teknikarien instrukzioak jarraituz; horretan aurreikusitako obra hidraulikoak nahitaez egin beharko dira sahiesbide eta hobekuntza lanak egin ahal izateko.

Une honetan, Udala Lege Zaharren enparantzaren beurbaniazio lanak egiten ari da, apirilaren 30erako amaitutzat egongo direlarik; dena den, trafikoarentzat behin-behineko bidea utziko da Erreka Bailarara doan sahiesbidea gauzatu arte.

2019ko martxoaren 4an espedienteari hasiera eman zion 54/2019 Alkatetza Dekretua onartu zen, eta data horretan ere eman dira legez-ezarritako txostenak.

Gauzak horrela, 2019ko aurrekontuetan aipatu kreditu aldaketa onartzeko egin behar den Udalbatzarraren data dela eta, ez da denborarik egon aurretik gaia informazio-batzordean aztertzeko; kontuan izan behar da kreditu aldaketa horrek baimenduko duela aipatu 2. Separata onartu eta lizitazioari hasiera ematea, dagokion gastua onestu ahal izateko, Udalbatzar honen gai-zerrendaren puntu bakarrean jasotakoa hain zuzen ere.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

A.F.A.ren 82.3 artikularekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

Proposamena:

“Kreditu gaikuntza bidezko kreditu aldaketaren 2/2019 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, onarpen proposamena irakurri da.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzarrak

ERABAKIA HARTU DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	59.190,77
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		59.190,77

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SAR RERA K)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	59.190,77
FINANTZAKETA GUZTIRA		59.190,77

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:05 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2019ko martxoaren 20an.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea